

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

*ZitzTool* zerbitzuaren bezeroak, adin-tarte, bizi-modu... desberdinak izan arren, txakurrak dituzten herritar eta turistak izango dira. Adineko eta arazo fisikoak dituzten pertsoneri bereziki, oso erabilgarria egingo zaie zerbitzu hau. Hauek baitira txakur kaka jasotzeko orduan arazo gehien izan ditzaketanak; eta horrela, modu errazago batean eta esfortzurik egin gabe, txakur kaka jasotzeko aukera izango dute. Horretaz gain, hotelak, udaletxeak, turismo bulegoak... eta zabor eta animaliekin erlazionatutako elkarteak ere *ZitzTool*-en bezeroak izango dira, zerbitzua kontratatu eta beraien bezeroei eskaini ahalko dietelako.

Bezero guztien artean segmentu edo talde desberdinak bereizten dira: Alde batetik, bezero finkoak daude; zerbitzua kontratatuta izango duten herritarrak eta hilero tasa bat ordainduko dutenak. Bestetik, hotelak, turismo bulegoak, udaletxeak eta elkarte desberdinak izango dira. Zerbitzua kontratatu eta bezeroei eskaintzeko aukera izango dute elkarte hauek eta beraientzat, prezio berezi bat prestatuko da, bezero eta erabilera kopurua kontuan izanda.

Gainera, etorkizunerako garapen bide bat honakoa izango da: gure proiektuak aurrera egin ahala eta irabaziak izan ahala, beste zerbitzu bat sortzea. Zerbitzu honek, kutxatilik kokatzen diren puntuetan, momentuan dirua sartu eta zerbitzua behin erabiltzeko sistema eskainiko du. Horrela, esate baterako, herrira edo hirira eguna igarotzera doan pertsona batek ere erabiltzeko aukera izango du. Sistema honek, beste bezero talde bat sortuko du.